

## Gasteizko biztanleek uraren kudeaketa ebaluatu dute



Lau urtean behin, AMVISAK **herritarren pertzepzioaren azterketa** bat egiteko agintzen du, gure hirian Uraren Zerbitzu Integrala emateari lotutako gaiei buruz herritarrek duten iritzia jakiteko.

Helburu horrekin, 2022ko azarotik abendura 401 inkesta telefoniko egin ziren, eta horietatik **ondorio orokor** hauek ateratu dira:

- Herritarrek AMVISA oso positibo baloratzen jarraitzen dute eta erabateko konfiantza dute. Inkestatutako pertsonen iritziz, haren kudeaketa ez

da aldatu aurreko urteekin alderatuta, eta oso parametro positiboetan mantendu dira.

- Aurreko azterketekin alderatuta, belaunaldi gazteenen kezka txikiagoa ikusten da urari lotutako gaien inguruan.
- Oraingoan, elektrizitatea, gasa edo gasolina bezalako beste baliabide batzuen prezioekiko sentsibilitatea handiagoa den testuinguru batean, uraren prezioaren balorazioa positiboena da aztertutako ekitaldi guztiak alderatuta.

### Adierazle nabarmenak

- Ura efizientziaz kudeatzeko beharrari buruzko **kezka pertsonalaren maila** mantentzen da: 1etik 10era bitarteko eskalan 7,64 puntuan dago (2019an 7,68 puntu zen). Gizartearen gainerako taldeetan kalkulaturako kezka 5,47 puntura jaisten da (6,31 2019an), eta horrek nahikoa eszeptizismo erakusten du besteen kezkaerako.
- %76k **uraren zerbitzu integralaren kalitatea** "oso ona" edo "ona" dela uste dute. Gogobetetze maila hori 2011tik jasotakoan antzeko parametro positiboetan mantentzen da.
- Uraren kudeaketari buruzko **konfiantza mailak** gora egin du aurreko aldiekin alderatuta, AMVISAren asko eta nahiko fidatzen direla dioten pertsonen ehunekoa %71koa baita.
- %71k gogoan dute beren **ur fakturaren** zenbatekoa gutxi gorabehera. Gehienek ordaindu behar denari bakarrik erreparatu diote, eta prezioa da horien interesgune nagusia. Ildo horretan, uragatik ordaintzen den prezioa beste zerbitzu batzuen bano bidezkoagoa dela uste dute (%64,5ek "bidezko prezioztat" jotzen dute).
- %93k diote etxean **iturriko ura** edan ohi dutela, eta horren kolorea, usaina eta zaporea "oso" eta "nahiko" onak direla.
- Uraren **erabilera eficiente edo zentzuzkoagoa** egiteko beharra "berehalakoa eta lehentasuneko" dela uste dutenen ehunekoa ia 20 puntu jaitsi da 2011az geroztik, eta %47an kokatu da (%33 adin txikieneko kolektiboan, gutxien kezkatzen den kolektiboan).
- Biztanle gehienek ez dakite beren **ur kontsumo** propioa kuantifikatzen, baina %72k "normalizat" jotzen dute, aurreko azterketen ildotik.
- Biztanleen artean bilakaera positiboa ikusten da **saneamendu praktikei** dagokienez, bereziki sendagaiak birziklatzeari dagokionez (%35 igo da) eta sukaldeko olio erabiliari dagokionez (%20 igo da).

AMVISAK, beste behin, bere lanean herritarrek jartzen duten konfiantza eskertu nahi du, eta hiriaren eta zerbitzuaren kalitatearen alde duen konpromisoa berresten du.

### Kontsumorako uraren kalitatearen irizpide tekniko-sanitarioei buruzko Errege Dekretu berria

**Kontsumorako uraren kalitatearen irizpide tekniko-sanitarioak, kontrola eta hornidura eguneratzen** dituen urtarrilaren 10eko 3/2023 Errege Dekretua argitaratu da, Europako egungo araudiarekin eta 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat etorriz.

Bere helburua da **giza osasuna babestuko duen marko juridikoa** ezartzea, kontsumorako uraren edozein kutsadurak eragin ditzakeen ondorio kaltegarriari dagokienez, eta ura lortzea erraztea, NBEk ura eta saneamendua izateko Giza Eskubideari buruz emandako jarraibideei jarraituz. Halaber, administrazioetatik eta operadoreetatik datorren **informazioaren gardentasuna ere hobetu** nahi du, herritarrek hornitzen zaien edateko urari eta oro har urari lotutako zerbitzuei buruz duten konfiantza handitzeko.

AMVISAK, estatuko gainerako operadoreekin batera, kontrolerako parametro berriak eta aldaketak ezarriko ditu, arauan jasotako ohiko parametroen mugetan.

### IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea: [info@amvisa-futura.org](mailto:info@amvisa-futura.org)